

## **1.ERANSKINA**

### **URIBARRI TOPALEKUA ORDENANTZA**

XEDEA ETA APLIKAZIO-EREMUA

#### **1.artikulua.-Ordenantzaren xedea**

Ordenantza honen xedea da Uribarri Topalekua gizarte-etxeko instalazioak eta gainerako zerbitzuak erabili ahal izateko erabiltzaileen eskubideak, betebeharrak eta baldintzak arautzea.

#### **2. artikulua.- Aplikazio-eremua**

Ordenantza hau udal titulartasun a duen Uribarri Topalekua gizarte-etxean aplikatu ahal izango da.

LEHENENGO TITULUA .-ERABILTZAILEAK

#### **3.artikulua.-Erabiltzailearen definizioa.**

Ordenantza honen ondoreetarako, erabiltzailea izango da gizarte-etxean legez sartzen da pertsona edo talde oro, bertako instalazioak eta zerbitzuak legez erabiltzeko, beti ere, Lezamako Udalaren baimenarekin.

Ez dira erabiltzailetzat hartuko bere zeregin profesionala betez instalazio hauetan sartzen diren pertsonak.

#### **4.artikulua.-Erantzukizun Zibileko aseguruua.**

Lezamako Udalak Erantzukizun Zibileko aseguruua izango du, Administrazioaren ondare erantzukizuneko kasuak estaltzeko.

BIGARREN TITULUA. INSTALAZIOETARA SARTZEKO ORDENANTZA

#### **5. artikulua.-Sarrera publikoa.**

Gizarte-etxerako sarrera publikoa eta librea izango dute Lezamako Udalak baimendutako erabiltzaileek.

Elkarte bakoitzak arduradun bat izendatutako edukiko du, eta hala agertuko da Udalean ere. Elkartze bakoitzak gizarte-etxean sartzeko giltza izango du eta arduradunari emango zaio giltza hori.

Giltzak funtzionamendu elektronikoa duenez, sarrerak eta irteerak zentroan erregistratuta geratzen dira.

#### **6. artikulua.-Gizarte-etxeko ordutegia.**

Gizarte-etxeak ordutegi irekia eta malgua izango du elkarteek erabili ahal izateko: goizeko 8:00etatik gaueko 23:00etara.

Ordutegi honetatik kanpoko erabilera oro, aurrez Udalaren baimena beharko da.

Uda garaian, ekainetik irailera, beheko solairua Donejakue Bideko Adiskideen Elkartek erabiliko du soilik, eta horrek markatu du, orain arte bezala, erromesak hartzeko ordutegia eta aterpetxea kudeatzeko ardura ere berak izango aldi horretan.

#### **7.artikulua.-Zerbitzuen eta jardueren informazioa**

Erabiltzaileek Informazio Zerbitzua izango dute eta hortik zentralizatuko da informazio, erreserba eta izenemate oro. Zerbitzu hori Udaleko kultura sailetik kudeatuko da.

Gizarte-etxeko informazioaren berri Udalaren WEB gunetik ere izan daiteke.

#### **8. artikulua.- Animaliak.**

Oro har ezin da gizarte-etxera animaliarik sartu non eta gidari lanak edo segurtasun lanak ez dituzten egiten.

#### **HIRUGARREN TITULUA.-INSTALAZIOAK ERABILTZEKO ORDENANTZA**

#### **9. artikulua.- Instalazioen erabilera normala eta berariazkoa.**

Gizarte-etxea normal erabili ahal izango da, instalazio honen xede nagusiaren arabera, edo berariazko erabilera ere egin ahal izango da, xede horrekin zerikusirik ez duena.

Instalazio baten berariazko erabilera kasuetan, honetako arau bereizleez gain, burutuko den jarduerari dagokion berariazko aplikatuko da.

## **10. artikulua.-Zentroko materialak erabiltzea.**

Zentroko materialak erabilia edo jarduera eginda ezingo da gizarte-etxeko ondasun higigarri edo higiezinaren egoera aldatu, jarduera egiterakoan zeuden bezala utzi beharko dira.

Espazio bakoitzean erabilera orokorreko materiala egonez gero, material hori erabiltzaileen esku utzik oda eta hauen ardura izango da materiala batetik bestera eramatea, jasotzea eta biltegitratzen den dagokion tokira itzultzea.

Zentroan ez dagoen edo eskura ez dagoen materialen bat erabili behar izanez gero, gizarte-etxeko arduradunen baimena beharko dute erabiltzeko eta erabiltzailearen ardura izango dira erabilera horren ondorioak.

## **11. artikulua.- Materiala biltegitratzea.**

Jarduera egiteko, erabiltzaileen euren materiala biltegitratu behar bada gizarte-etxean bertan, material hori horretarako berariaz egokitutako armairuetan, tiraderetan edo tokietan utziko da.

Udala ez da inondik eta inora ere udal zentroetan biltegitratutako material pribatuak zaintzeaz eta gordetzeaz arduratuko.

## **12.artikulua.- Udalarena ez den publizitatea jartzea.**

Ezin izango da Udalarena ez den publizitaterik jarri.

## **13.artikulua.-Egindako kalteak.**

Udalak bere esku dituen tresna legalen bidez eskatuko du erabiltzailearen batek nahita edo utzikieriaz instalazioetan egindako kalteak konpontzeko. Udalekoa eta Udaleko programaziokoa ez den pertsona edo elkarte batek (Federazioek, Taldeek, Elkartek, ikastetxeek edo bestelako taldeek) antolatutako jarduera edo ekitaldiren batean gertatu bada kaltea, kalteen erreklamazioa hauei egingo zaie, jarduera edo ekitaldia antolatzearen arduradun direnez.

Kalteen erreklamazio horien tramitazioak ez du zerikusirik izango balizko zigor administratiboekin. Zigor horiek honetan aurreikusitako arauak bete ez direlako edo ezar daitezkeen beste batzuk ezarri ez direlako ezarriko dira.

## LAUGARREN TITULUA. IKASTAROAK, TAILERRAK ETA BESTE TREBAKUNTZA JARDUERAK

### **14. artikulua.-Jardueren ezaugarriak.**

Lezamako Udalak antolatutako jardueretarako:

Udalak aurrez jakinaraziko dizkie kultur eta kirol elkarteei gizarte-etxean programatutako jarduerak.

Informazio hori eskura egongo da zentroan behar adinako urrerapenarekin eta Udalaren WEB gunean eta egoki irizitako gainerako bitartekoetan argitaratuko da, ahalik eta hedadura handiena izateko.

## BOSGARREN TITULUA. ESPAZIOAK ERRESERBATZEA ETA ALOKATZEA

### **15. artikulua.- Erreserbatu daitezkeen espazioak.**

Gizarte-etxeko espazio bat erreserbatzeak eta alokatzeak esan nahi du, eraikineko toki jakin baten erabilera eskatu duela elkarte batek berariazko xede baterako eta nolabaiteko aurrerapenarekin. Erreserbatu daitezkeen espazioak zehaztuta egongo dira eta erabili ahal izango dira, libre baldin badaude eta eskatutako jarduera zehatza egiteko baldintzak betetzen badituzte, horren berri emango da beti hala eskatutako elkarten artean.

Instalazioen erabilerarako baimena ematea Lezamako Udalak antolatutako edo baimendutako ekintzen mende egongo da eta ezingo da erreklamaziorik egin, egoera horren ondorioz aurrez baimendutako ordutegia eten edo aldatu beharra badago. Dena dela, ahal den guztietan gutxienez astebete lehenago emango da horren berri.

### **16.artikulua.- Espazioen erreserbak eta alokairuak eskatzeko baldintzak.**

honetako Hitzaurrean islatutako espirituarekin bat datorren jarduerak garatu nahi dituzten elkarteek eska ditzakete espazioen erreserbak. Udaleko elkarten erregistroan elkarte kultural, sozial, kirol elkarte edo aisiako bezala aitortuta egon beharko da.

Dena dela, espazio hauen erabilera ez da inoiz elkarte bakar batentzat izango, polibalentea eta partekatua izango da. Horretarako, elkarte horiek espazio berdinak erabiliko dituzte eta aldi berean bilerak, batzarrak edo hainbat jarduera egin daitezke.

Erreserbaren bat baimendutakoan, Udalari idatziz jakinarazi beharko diote eskariko datuetan egondako aldaketa oro.

Espazioa erreserbatzen den guztietan eta erreserbak irauten duen bitartean, talde, elkarte edo erakunde eskatzaileko pertsona arduradun bat bertan egon beharko da.

Udalak baldintza bereziak jar ditzake espazioen erreserba batzuetarako, honetan ezarritakoa bete dezan eta bere eskumendun organoen bidez hemen ageri ez diren baldintzetan espazio batzuk erabiltzeko baimena eman dezan salbuespenetan.

#### **17.artikulua.- Instalazioko erreserba bat baliogabetzea.**

Udalak erreserba bat baliogabetu egin dezake, behar izanez gero, instalazioa gaizki erabiltzen delako edo egindako jarduerak erreserbaren jatorrian zeuden zergatien kalterako badira.

Era berean, Udalak bere egiten du instalazioak erabiltzaileei eta jendeari oro har erabat edo zati batean ixteko eskubidea, hainbat zergatiren ondorioz erabiltzean arriskuren bata egon daitekeela zehaztuz gero.

#### **SEIGARREN TITULUA. ORDENANTZA EZ BETETZEA**

#### **18.artikulua.- Betebeharrak ez betetzea.**

Ordenantza honetan ezarritako arauak betetzen ez badira, zigorra jar daiteke.

#### **19. artikulua.- Kalteak konpontzea.**

Zigorra ezartzearekin batera, kaltea egin duenari eska dakioke aldatutakoa jatorrizko egoerara itzultzeko eta eragindako kalteak ordaintzeko.

Udalaren jabegoko ondasuna kaltetuz gero, udal zerbitzu teknikoek zehaztuko dute konponketa zenbatekoa den, horren berri arau hausleari edo honen arduradunari jakinaraziko zaio, ezarritako epean ordaintzeko.

#### **20. artikulua.-Arduradunak.**

Arau-haustearen zuzeneko arduradunak izango dira egile materialak, adingabeak direnean edo egozgarritasunik ezarri ezin zaionean izan ezik. Horrelakoetan legezkoz aintza duenak erantzun beharko du.

Zigortu beharreko ekintzak taldean egin badira, denek erantzungo dute elkartasunez.

Kalteen erantzule solidarioak izango dira besteek egin ditzaketen kalte administratiboak prebenitzeko betebeharrak duten pertsona fisikoak edo juridikoak.